

# getxoBerri

**Getxo**  
bizi ezazu

f t #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.587 zk.  
www.getxo.eus

Apirilak 16  
>> Apirilak 26

2020

## 2020ko zerga eta tasei buruzko informazioa Covid-19ren alarma-egoeraren aurrean

Udalak hainbat neurri hartu ditu 2020rako aldizkako eta ez-aldizkako zergak kobratzeari, geroratze eta zatikatzei, premiamendu-aldiko zorrei, tributu-izaerako birjarpen-errekurtsoei eta hornitzaileei ordaintzeari eta laguntzei dagokienez. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko premiazko tributu-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean eta martxoaren 14an alarma-estatua indarrean jartzeari buruzkoan jasotako aurreikuspenak kontuan hartuta.

### 2020ko zergaldiko aldizkako zergak: 2020ko zerga-egutegian sartu beharrekoak

Zerga-egutegian honako aldizkako zerga hauek sartu dira 2020ko zergaldirako:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga (TMIZ),
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ),
- Ibilgailuak finken barruan espaloien bitartez sartzeagatik eta aparkalekua erreserbatzeagatik tasa (Ibiak),
- Udaleko bide publikoetan ibilgailuak aparkatzeagatik tasa (egoiliarrentzak urteko TAO txartela),
- Autotaxien aparkalekua erreserbatzeagatik tasa,
- Kioskoekin bide publikoa okupatzegatik tasa,
- Kutxazain automatikoekin bide publikoa okupatzegatik tasa,
- Terrazekin bide publikoa okupatzegatik tasa.

Borondatezko bidean kobratzeko aldia urte bakoitzerako onesten den zerga-egutegian ezartzen da. Orokorrean, ekainean egin izan da borondatezko aldia. Alarma-egoera indarrean sartu zenean, martxoaren 14an, ez zegoen 2020ko zergaldirako zerga-egutegia onetsita. Martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoan, ezarritakoari jarraikiz, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan ere aplikatu behar baita, ekainaren 1era arte etengo dira bai zerga-egutegiaren onespina, bai borondatezko bidean kobratzeko aldiaren hasiera.

Kontuan hartuta zergak borondatezko bidean kobratzeko aldia hasi aurretik administrazio-lana egin behar dela eta onesten diren erroldak jendaurrean jartzeko izapidea egin behar dela, 2020ko ekitaldirako aipatutako erroldak borondatezko bidean kobratzeko aldia ekainaren 1aren ondoren hasiko da.

### 2020ko zergaldiko aldizkako zergak: 2020ko zerga-egutegian jasota ez daudenak



### Udalak zerga-egutegian jasota ez dauden beste zerga eta diru-sarrerak batzuen aldizkako kobrantza kudeatzen du.

Zerga-egutegia:

- Etxeko laguntza-zerbitzua jasotzeagatik tasa
- Babespeko apartamentuen zerbitzua jasotzeagatik tasa
- Zerbitzu-emakidako kontratuetatik edo jabari publikoa okupatzegatik sortutako diru-sarrerak
- Ondasun higiezinaren errentamendu-kontratuetatik sortu diren eta ondare-izaerakoak diren diru-sarrerak. Aipatutako diru-sarreraren aldizkako kobrantza, ohikoa den bezala, Diruzaintza Arloak ordainagiri horiek kobratzeko beharrezkoak diren datuak ezagutzen dituen heinean egingo da.

### Aldizkakoak ez diren zergak: Eskualdaketan aitorpenak, hiri-lurrien balio-gehikuntzaren gaineko zergaren ondorioetarako

Martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei buruzkoan, ezarritakoari jarraikiz, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan ere aplikatu behar baita, dagokion aitorpena aurkezteko epea 2020ko martxoaren 16tik aurrera amaitzen den eskualdaketei

buruzkoan, ezarritakoa. Email bidez ([zergak@getxo.eus](mailto:zergak@getxo.eus)) aurkezteko epea martxoaren 16tik aurrera amaitzen den atzerapenen eta zatikapenen eskaerei dagokienez, email bidez aurkezteko epea martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen den premiamendu-probidentzia jakinarazpena ekainaren 1era arte etengo da. Ordaintzeko epea, 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte atzeratuko da, egun hori barne. [exekutibo.bilketa@getxo.eus](mailto:exekutibo.bilketa@getxo.eus)

### Onartuta zeuden atzerapenak eta zatikapenak

Indarrean zeuden atzerapenei eta zatikapenei dagokienez, mugaeguna hilabete bat atzeratuko da ofizioz, eta ez da berandutze-interesik sortuko.

### Eskatzen diren atzerapenak eta zatikapenak

Aurkezteko epea eta borondatez ordaintzeko epea martxoaren 16tik aurrera amaitzen den atzerapenen eta zatikapenen eskaerei dagokienez, email bidez aurkezteko epea martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen den premiamendu-probidentzia jakinarazpena ekainaren 1era arte etengo da. Ordaintzeko epea, 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte atzeratuko da, egun hori barne. [exekutibo.bilketa@getxo.eus](mailto:exekutibo.bilketa@getxo.eus)

### Premiamendu-aldian dauden zorrak

Martxoaren 16tik ekainaren 1era bitartean borondatezko epea amaitzen den zorraren premiamendu-probidentzien jakinarazpena ekainaren 1era arte etengo da. Ordaintzeko epea, 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen den premiamendu-probidentzia jakinarazi zaien zerga-zorrei dagokienez, 2020ko ekainaren 1era arte atzeratuko da, egun hori barne. [exekutibo.bilketa@getxo.eus](mailto:exekutibo.bilketa@getxo.eus)

### Zerga-izaerako berraztertze-errekurtsoak

Baldin eta 2020ko martxoaren 16an dagokion errekurtsioa jartzeko 30 eguneko epea hasi bazen, epe hori ekainaren 1era arte etengo da. Ekainaren 1ean geratzen den aldiari dagokion epea hasiko da berriz. Baldin eta 2020ko martxoaren 16an ez bazen dagokion errekurtsioa jartzeko 30 eguneko epea hasi, epe hori ekainaren 1era arte etengo da. Horrenbestez, ekainaren 1ean hasiko da 30 eguneko epean errekurtsioa jartzeko aldia.

### Hornitzaileen eta laguntzen ordainketa

COVID-19aren ondorioz udalerriko herritarrek eta udalari zerbitzuak ematen dizkioten enpresek jasan duten eragin ekonomiko negatiboa arintze aldera, arreta berezia jarri enpresa txiki eta ertainetan nahiz langile autonomoetan, eta horien likidazio-bermean laguntzeko asmoz, udalak areagotu du izapidetutako hornitzaileen eta laguntzen ordainketa-aginduen maiztasuna; hala, asterokoa izan ordez egunerokoa izango da ([diruzaintza@getxo.eus](mailto:diruzaintza@getxo.eus)).

dagokienez, ekainaren 1era arte luzatuko da adierazitako epea.

Aurrekoa gorabehera, email bidez ([gainbalioa@getxo.eus](mailto:gainbalioa@getxo.eus)) edo notarioen bidez aurkezteko epea martxoaren 16tik aurrera amaitzen den atzerapenen eta zatikapenen eskaerei dagokienez, email bidez aurkezteko epea martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era bitartean amaitzen den premiamendu-probidentzia jakinarazpena ekainaren 1era arte etengo da. Ordaintzeko epea, 2020ko martxoaren 16tik 2020ko ekainaren 1era arte atzeratuko da, egun hori barne. [exekutibo.bilketa@getxo.eus](mailto:exekutibo.bilketa@getxo.eus)

### Administrazioak egindako aldizkakoak ez diren zergen ofiziozko likidazioak

Zergen likidazio berriak egiteko zerga-prozeduren hasiera ekainaren 1era arte etengo da. Bestalde, ordaintzeko epea 2020ko martxoaren 16tik ekainaren 1era bitartean amaitzen den likidazioei dagokienez, epe hori ekainaren 1era arte atzeratuko da, egun hori barne.

### Alta berriek sortutako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko aldizkakoak ez diren zergaren autolikidazioak

Ofizioz hasten ez den zerga-prozedura da; horrenbestez, ez dio eragiten martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean, COVID-19aren ondoriozko presazko tributu-neurriei

# Aldizkakoak ez diren udal laguntzekin bezala, erreferentziako Gizarte-langileak izapidetuko du Laguntza bat onartuta COVID-19ko krisiak eragindako zailtasun ekonomikoko egoerak arintzeko

Udalak, egun daudenei gehitzeko, prestazio ekonomiko gehigarri bat onartu du COVID-19ko krisiak eragindako zailtasun ekonomiko indibidual eta/edo familiarak arintzeko. Laguntza Aldizkakoak ez diren udal laguntzen oinarrien arabera izapidetuko da, izan ere, horiek oinarritzko premiei, ostatuari, prestakuntzarako gastuei, adingabeen eskolatzeari, energiari eta/edo etxebizitzaren mantentzeari edo gizarteratzeari edo laneratzeari buruz jasotzen dituzten epigrafeei beste berri bat gehitu zaie oinarritzko premietarako, gehienez 900€ gehiagorekin bizikidetzaren unitate bakoitzeko. Laguntza honek ez du inolako deialdi espezifikorik; izan ere, erreferen-



tziako Gizarte-langilea arduratzen da izapidetzeaz, egoera baloratu ondoren. Laguntza berriaren helburua da beren ekonomia kaltetuta ikusi duten pertsonak eta/edo familiek oinarritzko premien gastuetarako laguntza ekonomiko bat izatea ahalbidetzea. Gastu horiek jada jasota daude Aldizkako ez diren udal laguntzetan, baina orangoan malgutu egin da diru-sarreraren eta ondarearen muga, profil berriak, ohikoak izan ez direnak, eskuratu ahal izateko. Informazio gehiago, hurrengo telefono zenbakietan: Algorta-Neguri (94 466 01 01), Romo-Areeta (94 466 01 53) eta Getxo-Andra Mari (94 466 01 30).

## Getxoko haurrek eta gazteek egindako irudien bila

Gazteria Zerbitzuaren, Euskara Zerbitzuaren eta Komunikazio Arloaren arteko elkarlanetik Getxoko 5 urtetik 20 urtera bitarteko gazteek egindako irudien (marrazkiak, argazkiak eta muntaia grafikoak) bilketa sustatzen ari da.

Hartara, 5 eta 13 urte bitarteko haurrek konfinamendu egoera nola bizi duten islatzen duten irudiak bidali ahal dituzte, COVID-19ren ondoriozko alarma-egoera dela eta. Lanak udaleko sare sozialetan argitaratuko dira.


Bakoitzak bi lan egin ditzake gehienez eta ahal den kalitate handienarekin egindako marrazkiaren argazkia [areetakoludoteka@getxo.eus](mailto:areetakoludoteka@getxo.eus) helbidera bidali beharko da egilearen datuekin (izen-abizeak eta adina).

Argibide gehiago: Kukupraka ludoteka (688 812 886, astelehen, asteazken eta ostegunetan, 10:00etatik 13:30era, eta astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era) eta [areetakoludoteka@getxo.eus](mailto:areetakoludoteka@getxo.eus)

Bestalde, 14 urtetik 20 urtera bitarteko gazteentzat Gazteirudiak izeneko programa jarriko da abian. Honen helburua Gazteria Zerbitzuaren argitalpenetan (esku-orrietan, web orrian, sare sozialetan...) erabiliko diren irudiak biltzea izango da. Irudi bakoitzaren truke 15€ ordainduko dira, horiek erabiltzeko eskubidea eskuratzeko.

Hautatutako lanak egilearen izenarekin batera argitaratuko dira. Kasu honetan gaia librea da Getxon kokatuta baldin badago eta bertako gazteak eta horiekin lotutako jarduerak eta elementuak ageri baldin badira.

Informazio guztia [www.getxo.eus/gazteria](http://www.getxo.eus/gazteria) orrian dago.



OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN TELEFONOAK		
<b>Algorta-Neguri</b> 94 466 01 01	<b>Romo-Areeta</b> 94 466 01 53	<b>Getxo-Andra Mari</b> 94 466 01 30
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN BIKTIMEEI PREMIAZKO ARRETA ETA HARRERAKO TELEFONOAK		
<b>Algorta-Neguri</b> 94 466 01 01	<b>Romo-Areeta</b> 94 466 01 53	<b>Getxo-Andra Mari</b> 94 466 01 30
<b>Udaltzaingoa</b> 94 466 02 02	<b>Ertzaintza</b> 94 406 34 20	<b>Biktimari arreta 24 orduz</b> 900 840 111
<b>Emakunderen herritarrentzako zerbitzua</b> 945 016702	<b>Foru Aldundiaren Gizarte Larrialdia Koordinatzeko zerbitzua</b> 94 4025050	
BESTE BATZUK		
<b>Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak</b> 94 466 01 32	<b>Sexu Informazio Bulegoa</b> 94 466 01 37 sexuinfo@getxo.eus	

## 2020ko Liburuaren Egunerako ospakizun berezia

Datorren ostegunetan, apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da mundu osoan, Miguel de Cervantes, William Shakespeare eta Inca Garcilaso idazleen heriotzarekin bat egiten duen eguna. Hori dela eta, Getxoko udal liburategiek nahi dute mundu guztiak etxetik egin dezala bat honako ekimenarekin: **ETA ZUK, ZER EGITEN DUZU ZURE LIBURUAREKIN?**

Kontua da bideo edo argazki bat bidaltzea, egun hauetan, konfinamendu egun hauetan, bakoitza liburu batekin egiten ari dena erakusteko: pasarte bat irakur dezakete, irakurketa gomendatu, liburu-azal bat edo pertsonaiaren bat marraztu, pasarte bat antzetzu, gimnasia edo malabareak egin... Bakoitzak nahi duena. Hori bai, beti liburu batekin.

Ekarpen guztiak (betiere inorentzat iraingarriak ez badira eta liburu batean oinarrituta badaude) udal liburategien sare sozialetan argitaratuko dira #LiburuEgunaGetxo20 traolarekin; eta mundu guztiak, parte hartzen duten guztiak, oihalezko poltsa eder bat jasoko du sari gisa. Poltsa hori Getxoko hiru liburategietan emango da, atak berriro irekitzen dituztenean.

Liburuaren Eguna modu horretan ospatzeko interesa dutenek, beren ekarpenak honetara bidali ditzakete: [villamonte.liburutegia@getxo.eus](mailto:villamonte.liburutegia@getxo.eus) edo whatsapp bidez: 696.61.51.92 edo 696979630, apirilaren 23ra arte.



KORONABIRUSA CORONAVIRUS

**KRISI EGOERA HONETAN MARTXAN DAUDE INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO ARRETA ZERBITZUAK**

**DURANTE LA CRISIS SIGUEN EN MARCHA LOS SERVICIOS DE ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA**

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES**

**24 h**

**DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU LLAMA, TE AYUDAREMOS**

**INFORMAZIOA ETA BESTE EDOZEIN LAGUNTZA PARA INFORMACIÓN Y CUALQUIER OTRO TIPO DE AYUDA**

**900 840 111**

**LARRIALDI BAT BADA SI ES UNA EMERGENCIA**

**((112)) SOS DEIAK**

Download on the App Store  
ANDROID APP ON Google play

## OHARRAK


**\*Oporrak Bakean.** *Vacaciones en paz/ Oporrak Bakean* izeneko programa bertan behera geratu da aurten, koronabirusaren ondorioz bizi den egoera dela eta. Programa Getxo Pro Sahara-ATAL elkarteak antolatzen du, udaleko Garapenerako Lankidetzaren arloaren laguntzarekin, eta Saharako adingabeei uda familia getxotarrekin igarotzeko aukera eskaintzen die.

**\*EuskarAbentura 2020.** Maule eta Getxo artean uztaileko aurreikusitako espedizioa abuztura arte atzeratuko da, beti ere egoera orokorrak horretarako aukera ematen badu eta osasun-bal-dintzak bermatzen badira. Hori dela eta, antolatzaileek maiatzaren 31 arte itxarongo dute parte-hartzaileen zerrenda eta informazio eguneratua argitaratzeko.

**\*Jaiak.** Maiatzaren 14tik 17ra egitekoak ziren San Isidro jaiak irailera arte atzeratu dira; irailaren 10etik 13ra ospatuko dira, hain zuzen ere.

**\*KZgunea.** Euskadin herritartasun digitala sustatzeko Eusko Jaurlaritzak sortutako telezentro-sareak, [telelaguntza-zerbitzu](https://bit.ly/3b5HY90) baten bidez, euskal herritarren zalantza teknologikoak argitzen lagunduko du; zentroetan fisikoki egotea eskatzen ez duten baina zerbitzu hori behar duten erabiltzaileek erabiltzeko errazak diren kanalen bidez eskainiko da laguntza hori. Beraz, zerbitzua behar duten erabiltzaileentzako arreta telefonoz edota posta elektronikokoaren bidez izango da. <https://bit.ly/3b5HY90>

**\*Informazio eguneratua.** Covid-19rekin zerikusia duten informazio guztiak udalaren webgunean daude, Koronabirusa atalean: <https://www.getxo.eus/eu/servicios/avisos/1243>



## Udalak adineko pesonei telefono deiak egiten dizkie, osasun alarma-egoeran duten egoera ezagutzeko

Udala telefono deiak egiten hasi da bakarrik edo beste adineko pertsona batzuekin batera bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen, COVID-19ko krisiak sortutako egoera nola bizitzen ari diren jakiteko. Aste batzuetako konfinamenduaren ondoren, helburua da modu enpatiko eta hurbilean harremanetan jartzea eta lehen eskutik jakitea ea oinarriko beharrak beteta dituzten, eta, premiaren bat hautemanaz gero, udalerrian dauden laguntzak ematea.

Telefono deiak 09:00etatik 18:00etara egiten dira. 10.000 bat dei egingo dira bakarrik edo 65 urtetik gorako beste pertsona batekin batera bizi diren 65 urtetik gorako pertsonen. Deiak barrutik antolatzen ari dira, eta deia egiten duenak deitu beharreko pertsonaren izena, bi abizen, jaioteguna (adina), helbidea eta telefonoa ditu. Pertsona horrek udaletxetik deitzen duela adie-

raziko du beti, eta deiaren xedea modu atseginean eta hurbilean azalduko du ("Egoera berezi honen aurrean, jakin nahi genuke ea ondo moldatzen zaren eta ea laguntza motaren bat behar duzun "...).

Jarraian, etxetik ezin ateratzera nola egokitzen diren galdetuko da, eta baita eguneko oinarriko premiak betetzeko laguntza-sarerik duten, laguntzarik behar duten, zertan ...ere. Deia jasotzen duen pertsonak ez badu erantzun nahi edo ez badu esaten duena jasota utzi nahi, ez dela daturik jasoko adieraziko zaio. Azkenik, emandako denbora eskertu ondoren, edozein kontutarako Getxoko Udalarekin harremanetan jarri behar izanez gero, 010 zenbakira deitu dezakeela azaltzen da.

Dei horien bidez, adineko pertsonen

egoerari buruzko informazioa jaso daiteke, batez ere normalean udal-zerbitzu edo programekin zerikusirik ez dutenena; izan ere, gainerakoekin konfinamenduaren hasieratik udala harremanetan egon eta lan egin ahal izan da egoera arazotsuenei irtenbideak bilatzeko. Ekimenari esker, kasu askotan bizitzen ari diren bakardadea nola eramaten ari diren ezagutu ahal izango da, laguntza-sarerik duten, egoera psikologikoa eta emozionala duten, eta zer premia mota dituzten, irtenbide bat bideratu ahal izateko.

**Harremanetarako telefonoak:** Romo-Areeta (94 466 01 53), Algorta-Neguri (94 466 01 01) eta Getxo-Andra Mari (94 466 01 30) Oinarriko Gizarte Zerbitzuak; Eusko Jaurlaritzaren Guztion Artean laguntza-programa (945 222 222) eta Bizkaiko Psikologia Elkargoa (944 79 52 70).



### Getxo Lagunkoia ekimenak etxean jarduera fisikoa sustatzeko hainbat bideo egin ditu

Romo Kultur Etxean Getxo Lagunkoia ekimenaren barruan egiten den jarduera fisikoaren talde arduradunak hainbat bideo eta gomendio egin ditu zentroko gimnasioan erabiltzaileentzat, etxean dauden bitartean hainbat ariketa egiten jarraitu ahal izate aldera. Hain zuzen ere, lau bideo (mantentze-gimnasia, indar-gimnasia, pilates eta yoga) eta orri batzuk (indar eta erresistentzia ariketa eta yoga jarrera batzuekin) prestatu dituzte. Baliabide horiek gimnasia erabiltzen duten 210 lagun bitarteko WhatsApp, e-mail... bidaltzen ari zaizkie. Udal webgunean daude: <https://www.getxo.eus/eu/envejecimiento-activo/noticias/4>



### Getxo Lagunkoia proiektuaren Talde Eragileak arrakastaz gainditu du eten digitala

Pasa den astean batu zen Getxo Lagunkoia ekimeneko Talde Eragilea erronka garrantzitsu batekin, hain zuzen ere, adin jakin bat gainditu dugunean hainbeste beldur sortzen digun eten digitala gainditzea. Proba oso positiboa izan zen, lortu zuten, eta konfinamendua gorabehera aktibo jarraitzen dutela jakin dute, hausnarketak partekatuz eta udalerriko adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko ideiak plazaratuz. Zalantzarik gabe, "eten digitala" izan zen gai izarretako bat, erronka eta erantzukizun bat, hau da, adineko pertsona guztiei komunikazio-bide berri horietara iristeko bidea erraztea.



## 70 profesional eta 150.000 litro/egunean garbiketa intentsiboan eta hondakinen bilketan, kaleetan

70 profesionalak, hiru txandatan banatuta, kaleko garbiketa eta desinfekzio zerbitzuak, eta hiri hondakinen bilketa egiten dute, teleanaren bidez egiten diren bulego zerbitzuen laguntzarekin, eta egunean 150.000 litro disoluzio desinfektatzaile inguru erabiltzen dituzte (alda daiteke, egunaren lanaren banaketaren arabera). Lau ekintza eremutan lan egiten ari da: desinfekzioa motxilekin (%2an hipokloritoa, %2an diluituta, duen urarekin, paperontzietan eta seinaleetan, eta saltoki irekietarako, anbulatorioetarako, farmazietarako, supermerkatuetarako, igogailuetarako, egoitzetarako, komisarietarako, osasun-zentroetarako eta jardueraren bat dagoen tokietarako sarbideetan, eta maiztasuna egunerokoa da aste barruan, edo txandakakoa bes-

teetan, erabileraren intentsitatearen arabera); galtzadak urez garbitzeko makinak (hipoklorito diluitua %0,5ean edo koipegabetzaillea alkohol-oinarriarekin, nagusiki oinezkoentzako gunee-  
tan eta kaleetan, egoitzetatik, anbulatorioetatik, autobus-geltokietatik, arkupeetatik, maskotak paseatzeko guneeetatik, zentro medikoetatik, polizia-etxeetatik eta abarretatik hurbil dauden eremuetan, egunero erdiko guneeetan); edukiontziak desinfektatzea alkohol-oinarria duen koipegabetzaillearekin (lau aldiz astean erabilera handieneko baterietan eta erabilera txikikoetan hiru aldiz), eta edukiontziak garbitzeko kamioia, koipegabetzaille berberarekin ere (bi txanda, bata goizez eta bestea gauetz).



## Udaltzaingoak Alarmaren Dekretua betetzen ari dela zaintzen du eta alaitasuna eramaten ari da umeengana beren urtebetetzeetan

Udaltzaingoak eskerrak eman dizkie herritar gehieni Alarmaren Egoerari buruzko Errege Dekretuan emandako konfinamendu-agindua betetzeagatik, koronabirusaren hedapena geldiarazten laguntzeko. Elkartasunik gabeko jokabideengatik salatutako pertsonen kopuru txiki bat dago, Ertzaintzak eta udaltzaingoek Euskal Autonomia Erki-  
degoan jarduteko irizpide bateratuei jarraituta. Martxoaren 14ko 00:00etatik apirilaren 14ra, asteartera arte, Poliziak 324 salaketa jarri ditu egungo murrizketak ez betetze-  
agatik.

Gainera, beren eguneroko zereginen horretarako aukera ematen duten guztietan, Udaltzaingoa ilusio pixka bat eramaten ari da, printzipioz, Getxon urteak betetzen dituzten

edo egoera bereziren bat duten haurren kolektiboari. Autoaren bozgorailutik *Zorionak Zuri* edo *Cumpleaños Feliz* kantekin animatzen dituzte. Batzuetan, suhiltzaileek, Ertzaintzak eta DYAk ere parte hartu dute. Udalak eskatzen du zorion-eskaerak ez egiteko ospakizunaren egunean bertan, baizik eta gutxienez egun bat lehenago, eta ez daitezela telefonoz egin, hurrengo helbide elektronikoen bidez baizik: [coordinacion.policia@getxo.eus](mailto:coordinacion.policia@getxo.eus) (gaztelaniaz) eta [Kordinazioa.polizia@getxo.eus](mailto:Kordinazioa.polizia@getxo.eus) (euskaraz), harremanetarako telefono bat utziz. Patrulak Bihotz Sakratuaren Udal Egoitzara eta Urdulizko eta Gorlizko ospitaleetara ere joan dira, egoiliarak eta gaixoak animatzeko, eta bi zentroetako lan eta osasun arloko langileen lana eskertzeko.